Menderagailu batzuen inguruan

Adolfo Arejita

0. SARRERA

Jardunaldion asmoa, besteak beste, bizkai euskerearen gramatika--izaera eta berezitasunak azaleratzea da, besteak beste. Guk sintaxi alderditik jo behar genduan geure araketan, eta hor ikertu, euskal gramatikaren barruti nagusiaren barruan, zek merezi eban edo zer komeni zan nabarian jarri gengian; hau da, berezi legez edo garrantzitsuago legez, zeintzuk hautatu behar genduzan.

Oinarrian euskal gramatika, eta euskerearen sintaxia, bat eta bera dala baiezta daiteke; lexikoa be hizkuntza osoaren ondarea dan moduan. Baina baita be egia da, euskereak historiaren ibilian eta eskualde bakotxean, forma batzutara gehiago jo dauala eta beste batzuk baztertu, egitura batzuk ugaritu eta nagusitu egin dira, eta beste batzuk mehaztu eta bakandu. Halan sortu da sintaxi arloan be zelan--halango dibersitatea leku batetik bestera, nahiz morfosintaxia, beti be, hiztegia, fonetika eta beste hizkuntz atal batzuk baino iraunkorrago dan.

Sintaxiak barruan hartzen dauan barrutia zabala eta ugaria da, eta danari batera heldu gura bageuntsa, luze joko leuke beharleku horrek. Eta guztira behar hori ez dator ondo jardunaldiotako helburuagaz: gai zehatzak denbora mugatuan jorratzea.

Bizkai sintaxiaren alderdi batzuk, gainera, ondo aztertuta ezeze, gaurregungo beharrizanetarako taiuz finkatuta be badagozala ziurta ginei. Orain dala urte biko Mendebalde Alkartearen jardunaldietara atzekari edo posposizioen txostena aurkeztu genduan. Deklinabidearena be barriren barri aztertu eta finkatu da. Eta ez da ahaztu behar, deklinazio-atzizki eta atzekariok, bitzuk dirala zein baino zein garrantzitsuagoak euskal perpausaren joskerarako.

Txosten honetan, bada, sintaxiaren barrutian arlo bat bereiziko dot eta munarriak ipini: mende-perpausez jardungo dot soilik, gora handiko beste alderdi batzuk hurrengorako itxita. Mende-perpausen munetan munarriak ipini esan dot, baina barruan gelditzen arloa be ez da makala; asko emoten dauana baino.

Horregaitik, hor be beste bereizketa bat egingo dot: bizkai euskerearen alderdirik bereizgarrienak erabiliko ditut, guztionak bazterrean itxita. Alderdi "bereizgarriak" esan dot, zelan-halango erizpide batez epaitzeko zer hautatu eta zer ez. Adjektibo labana dana badakit, eta geldiro begiratzen hasi ezkero, bereizgarritzat markatu doguna ez dala horren bereizgarria be bai. Baina, lehengora etorrita, baditu bizkai euskereak beste euskera-ereduetan mehatz edo bakanagoak diran egiturak, gure artean ondo sustraituak izanik.

Bereizgarritasunak izentatzerakoan, ezinezkoa jat sinkronia-zelaira mugatzea; ezinbestekotzat joten dot, diakroniaren zelaian sartu eta hizkuntzaren atzera-aurreretan murgiltzea, erakusteko, ez bakarrik zer dan gaur bizkai euskerea, ezpada baita zer izan dan lehenago. Gaur ezer bagara, lehenari eskerrak gara, eta lehenak ez dau izan behar nahitaez alperriko gain-zama jasanezina. Sarritan, gaurko erabilerak

dituan hutsune edo zehazbakotasunak lehenaren laguntzaz hornidu eta ugaritu geinkez. Irigoien irakasle gogoangarriak esan ohi ebanez, tradizino klasikoa geure "memorio kulturala" dogu, geure gareanaren atal bat, eta gu be hatakoan gagoz: aurrerantzerako bideak urratzeko balio eta lagun gaikezala. Hagaitik uste dot, gure klasikoen erabilerak, ezagutu ezeze, estimu onean euki behar gendukezala.

1. MENDERAGAILU OSAGARRIAK

Mende-perpaus osagarri edo konpletiboak, perpaus nagusiaren barruan funtzio oinarrizkoa jokatzen dabenak dira; gitxi gorabehera, Nor-IS baten ordezkoak egiten, honen lekuan perpaus egitura bat txertatuz.

Ordezkatze hori jazoteko baldintzak aditz nagusiaren esku egon ohi da. Aditz honen izaera semantikoak epaitzen dau, nor-IS baten lekua mende-perpausak bete ahal dauan ala ez, eta zein baldintzatan, eta ze menderagailuren bidez.

Azalpenetan gehiago luzatu barik, menderagailu egiturak aurkeztuko ditugu, eta honeen artean mendebaldean zelanbaiteko berezitasunen bat eskeintzen dabenak.

1.1. ZE (/ EZE) aurrekaria osagarrietan

Ekialdean eta erdialdean *ezen* egiten dana, *ze* egiten da mendebaldean, honen aldaera zaharra *eze* dala, testu zahar eta klasikoetan nagusi dana. Gaurregun lehentasuna *ze* laburragoari eskeini leio beharbada, holan oguzten dogulako hiztunik gehienok. Halanda be, *eze* hobesteak be baleukake bere emendiotxoa, zentzu-nahasketak uxatzeko. Izan be, *zer* itaun-hitzaren aldaera honek erabilera handia dauka, batzutan graduatzaile gisa —*ze gozoa! ze ondo!*—, beste batzutan determinatzaile modura —*ze etxe eta etxe oste!*—.

Jakina da bestetik, mend. osagarriez ganera, beste menderakuntza batzuk adierazoteko dauan erabilera ugaria: arrazoi emotea dala —*Oin ja ez gara joango, ze berandu da*—, ondorioa, konparaketa eta beste.

Egitura beretsua dogu euskara osoan, aldaerak kenduta: *ze / ezen* + Adtz-*la*. Halan bada, *ze / ezen* aurrekaria, aditzari dautsan *-la* atzizkiaren marka osogarri legez erabilten da. Mendeko osagarrion egituran, beraz, *-la* atzizkia ezinbestekoa da, eta *ze / ezen* aurrekariarena hautazkoa: batzutan bai eta beste batzutan ez, azaltzen da.

Egituran ez arren, erabilera alderditik, *ze* mend. eta *ezen* erdi-ekialdekoaren artean diferentzia agiri bat badago. Ekialdeko tradizinoak, aurreretxiak alde batera itxita, bete-betean aintzakotzat hartu dau *ezen* mend. osagarrietako markatzat. Eta adibideen bila ez dago urrun joan beharrik, Leizarraga, Axular eta klasiko enparaduetara; XVIII, XIX eta gaur egunerarte eten barik iraun dau hango idatz ereduan aurrekari horrek, kanpo-sunda atxakiei jaramon gitxi eginda.

Mendebaldean aspalditik dator *ze* horrek jasaten dauan bazterkuntza. Mogelegan ez dakusku *ze/eze* horren oinatzik, eta Markinako eskolako idazleetan be nekez. Hemeretzigarren mende akabuan abiatzen dan Arana, Azkue eta ostekoen uholde horretan hainbat gitxiago, ze susmagarri handitzat joko dira erdaratiko kalkoak, lexikalak zein sintaktikoak. Eta halan gaur arte. Bizkaikoaz dinoguna, erdialdeko autoreakaitik be baiezta daiteke handi-handika eta salbuespenak salbuespen.

Bizkai mendebaldeko autoreak izan dira, Añibarro aurretik dala, *eze/ ze* konpletiboa gehiago erantadu dabenak, tradizino zaharrenaren lorratzean. Ez zan alperrik Añibarro izan, Axularren *Gero* bizkai euskerara bihurtu ebana, ekialdetiko sintaxi-egitura eta guzti sarritan. Zabala bilbotarrak galga gitxiagogaz darabilz honetarikoak. Dana dala, mendebaldeko autoreotan be, *ze* osagarria da mehatzena; hainbat ugariagoak dira kausazkoa nahi ondoriozkoa:

"Azquenez, jaquin beozu, ce, celacoa dan vicitzea, alacoa dala eriotzea" (Añ *EscL* 83)

"Eguizue bada alan, eta derechat ce orregaz Y(an)g(oi)coac escu beteacaz botaco dituzala ceuen biotzetara bere graciac, bere arguitasunac, ta bere laguntzaac, eta pecatari asco eta andiac sartuco direala Yaunaren bideetan." (Zab *Jerus* 9)

Leku askotako hizkeran, beharrezko gertatzen da kontestu batzutan *ze* erabiltea. Aditz nagusia alegiazkoa danean, esateko: *Esan lei(teke) ze sekula ez dauala ardaorik edan; berak garbitu dau botila osoa. Pentsau lei(teke) ze denpora ona dakarrela.*

Gainerontzeko kontestuetan hautazkotzat jo behar da *ze* aurrekari osagarria. Dana dala, idatzizko testuek erakusten daben baino askoz ugariagoa da hizkuntza bizian. Esaldiaren ordena dala-ta, perpaus eta aditz nagusia aurretik eta mendeko osagarria ondorik azaltzen dira beti.

Gaurregungo ahozko ereduetan *ze* horren aldaera indartu bat erabilten da sarri, *baze, bada eze* bere osotasunean. Adibidez: *Dino baze, gaur ezin dauala eta bihar etorriko dala. Esan deust baze, gura dogune -an joateko*.

1.2. *-na* atzizki osagarria

Altubek marka osagarri legez sailkatu ebanetik, gramatikalariek sarri eta ugari hitzegin eta idatzi izan dabe *-na* honezaz, beronen erabilera-kontestuez, mintzagai-paperaz, berau agintzen daben aditz nagusiez eta abar. Gu ez gara, edo geuk lehenago edo bestek esanak barriro errepikatzen hasiko. Baina bai zertzelada bat edo beste emon, erabilera zuzenaren inguruan eta tradizinoaren gerizeaz.

Mezuaren pisua esaldi nagusian dago beti; aditzean bertan gehienetan, baina bardin beste osagairen baten be:

Badakit euskaldunak dirana

Beti jakin dot pertsona ona dana

Nork ez daki gu baino gehiago dirana!

-na atzizkiaren bidez, mendeko osagarriaren prozesua gertatutzat edo gertatzekotan autortzen dau hiztunak; mendeko prozesua halan da, ez da zalantzatan ipinten. Esaldiaren mezu barria beste zerbait da, beraz: prozesu hori baieztatzea, ezaguntzat, jakintzat edo agiritzat emotea, gehienetan. Horregaitik, bada, aditz nagusiaren eremu semantikoa ziurtasunaren inguruan mogitzen da: *jakin, egia izan, ezagun izan, konturatu, seguru egon, agiri izan, igarri, ikusi, autortu, sinestu* eta halako aditzak ohi dira gehienetan, eta *esan, entzun* legezko aditz neutroagoak be bai batzutan.[1]

Honen inguruan bada beste eretxi bat be gramatika bidez asko zabaldu dana: aditz nagusia ezezka egon ezkero, mendeko osagarriak *-nik* hartu behar dauala. Hori be ez da beti holan. Hiztunarentzat gertaera bat halan bada (halan da eta ez dago dudatan jarterik), nahiz eta aditz nagusia ezezka egon, *-na* daukagu mendekoan: *Marrotuta egoan lez, ez deutso igarri bere nebea zana.* Eta hainbat gitxiago aditz multzo nagusiak / Izen + *izan* / egitura badauka, aditza kopulatiboa izanik. Holakoetan ezinezkoa da *-nik.* Esaterako: *Ez da egia zu ni baino gaz - teagoa zarana.*

Eta *-na* atzizkidun kontestu-ereduei tiraka eginez heldu gara akabuan *Eskerrak …-na* esapide ugarira be. Bizkai hiztunontzat berezkoa da esaldia honetara jostea: *Eskerrak etorri zarana; Eskerrak berak eka - rri nauana; Eskerrak irabazi doguna.* Dinot hau, ze gure komunikabide batzuk lekukotzat hartu ezkero, edozein erbestekok zin egingo leuke, egundo halan ez dala esan euskeraz, eta bai ostera: *Eskerrak eto -*

[1] Esate baterako: *Entzun dot ezkontzeko dirana. Entzun eban besteak ailegau zira - na. Esan deutso gauean berandu etorriko dana. Esan neutsan aita makalik dabilena.*

rri zaren, Eskerrak berak ekarri nauen edota *Eskerrak irabazi dugun* eta halakoak.

Osagarri eredu hau, *-na* atzizkiduna, guztiz gomendagarria da batu estandarrerako be, adierazpena matizazio aldetik aberastu egiten daualako. Guztiz bestelakoa da hiztunaren ikuspegia ondoko esaldi bitzutan: lehenengo: *Peruk esan deusku udan Ameriketara doala;* bigarren: *Peruk esan deusku udan Ameriketara doana.* Lehenengoan, Peruk dinoskun *hori* da adierazoten jakuna, egia zein guzurra izan; bigarrenean, Peruren *esate* edo komunikatze hori da nobedadea, ze Ameriketara joatea ziurtzat joten da.

Euskerearen mendebaldean dago sakonen eta ugarien sustraiturik egitura hau, baina bizkaieraz haruntzago be zabal dabil gipuzkeran barrena. Goiherri eta Urolako autore klasikoen idatzietan eurrezean idoro leitez testigantzak. Egia da, euskal autore batzuk beren-beregi baztertu dabela osagarrietan atzizki hori; beharbada, erlatibokoekin ez nahastearren edo. Halan jazo da esaterako Mogelegaz, eta Añibarrogaz be bardintsu. Ez ostera Frai Bartolomegaz edo Zabalagaz.

Honegaz amaitzeko, egitura honen alde, lekukotasun zaharrak dituala be esan gura dot, bizkaieraz zein gipuzkeraz. Hamazazpigarren mendekoak dira gitxienez autortzarik zaharrenak. Isastik baturiko Juan de Lazkano-ren kantu-ataltxo hau dakart aurrera: «*Juan de Lazcano beltzarana, / Guipuzcoaco capitana, / Franzez osteac jaquingo du / Ura Ondarrabian zana*» (*TAV* 3.1.12.).

1.3. *-nik* partitiboa

Izenkietan *-ik* atzizkiaz beteten dan eremuaren antzekoa mendeperpaus osagarrietan *-nik* atzizkiaz egiten da. Atzizki partitiboak kasu absolutibo mugatzailedunagazko (Ø + *-a*) dauan hartuemon bardintsua dau *-nik* atzizkiak *-na* osagarriagazkoan.

Jakina da, halanda be, testuinguru murrituagoak dituala osagarri--partitiboak izenkietakoak baino. Aditz nagusia ezezka emona dagoanean, ez beti, baina sarritan onartzen da mendekoan *-nik*. Beti ezetz dinot; egitura predikatiboetan esaterako *-na,* edota *-la,* agertuko da: *Ez da egia bihar martitzena dana; eguaztena da bihar.* Partitiboaren bigarren erabilgune nagusia be, itaun-perpausetakoa, *-nik* atzizkiaz osotu daiteke mende-osagarrian, baina hemen be ez beti: mendeko horren adierazkizuna egiazkotzat edo halan dalakotzat erakutsi gura badau hiztunak, *-na,* edota *-la,* beharko leuke. Halan: *Ez dakizu bihar martitzena dana* (*dala*) *ala?* Edota: *Ez dau esan, ba, bihar dato -rrela? Zegaitik dino orain ezetz?.* Ziurtzat joten da lehenengoan bihar martitzena dala, eta bigarrenean, bihar etorteko kontua aitatu daualа.

Han-hor-hemengo euskal testuak arakatuz, ondorio arin honeetara heldu geintekez:

a) Mendebaldean garatu da *-nik* osagarria, eta apurka-apurka erdi eta ekialderantz hedatu.
b) Atzizki osagarri legez, ez da hain aspaldikoa: XIX. mende-hasiera ingurutik idoroten ditugu beronen lekukotasunak bizkai euskeran. Argi dago, bada, *-na* baino askozaz beranduago.
c) Tradizio idatzi klasikoko adibide urriak ezezkako perpausetakoak dira ia beti. Nekez itaun-perpausetakoak.
d) Bizkai tradizino klasikoan lekukotasun ugariagoak dagoz ekialdean (Frai Bartolome eta Mogeldarrak (a)), mendebaldean baino. Ez da erraz Añibarrogan adibideak batzen; errazago, ostera, Zabala bilbotarragan (b).

Tradizino bitzuen adibideak emongo ditugu:

(a) Ez neban uste orren compijauba cinianic (JAMog *PAb* 94), ¡Illten egon, ta gachic daucanic sinistu ez! (Bartolo *Icas* II 58), “Cembat vici dá Jangoicuaganic ecer artu ta erantzun biarco deutsanic gomuntau baga (JJMog *MaiLor* 98)

(b) Eta orregaitic beré eztau iñoc confesadu gura berac errua *dau-canic* (Zabala *Bermeo* 195), Ez neunkean nic sinistu nire semeac, nire alabeac ori eguingo *eustanic* (Zabala *Irun* 116)

Gaurregungo ahozko erabilerari ohartu ezkero, testuinguru zabalagoak ditugu idatzizkoan baino. Baina ziurra dana gauza bat da: *-nik* darabilgunean, mendeko ekintza horren betegarritasuna zehaztu bakotzat aurkezten da: ez dakigu bete dan ez beteko dan. Beren-beregi izten dau hiztunak zehaztu barik: ekintza betetzearen inguruan indeterminazio garbia, beraz.

Azken puntu hau dala-ta, gehiegikeriazko akatsak ez dira falta gaurregungo komunikabideetan eta literaturan. Hiperrerabilerok dirala-ta esan behar da, tokatzen ez dan lekuan erabiltea akats larriagoa da, erabili behar dan lekuan ez erabiltea baino.

1.4. *-n* subjuntiboko osagarria

Bai ekialdeko tradizioan —klasikoan eta gaurko hiztunetan— eta bai Bizkai euskeran ez da bape gauza bitxia, lag. aoristoaz eregiten diran mendeko osagarriak *-n* atzizkiaz markatzea, ezinbestean *-la* erabili barik, erdialdeko idazle eta hiztunek ohi daben modura.

Ekialdeko tradizinoan, edozein dala be aditz nagusia, *agindu, erran, galdegin* edo *nahi izan*, nagusi da aditz-atzizki hori osagarri--funtzinoa dauanean.

Bizkai euskeran, jakina danez, erdibitze semantiko bat jazo da *-la* eta *-n* atzizki osagarrien inguruan. Horren lorratzean, *-la* atzizkia hautatu ohi dabe *adierazpen* eremuko aditzek: *agindu, erregutu, eska-tu, esan* eta beste; eta *-n*, barriz, *gogoeta, sentipen* edo *barne-inpresio* eremuko aditzek. *Gura/nahi izan* dateke agiriena, baina ezagun samarrak dira beste batzuk be: *itxi, laketu*… Bestetik, hemen sartu behar dira Predikatu-sintagma + *izan* kopulatiboaz eregiriko perifrasien

mende agertzen diran osagarriak be, batez be *bildur izan,* baina baita: *komeni izan, zilegi izan, ona / hobe izan, egoki izan, beharrezkoa izan* e.a. Era berean, erabilgarritasun handikoa da, aditz nagusia ezezka emona dan kontestu askotan be.

Gaurregun gomendagarri izan daiteke *-n* hizkidun osagarria honetariko aditzekin: *opa izan,…*

Erdi aldeko tradizinoan, gipuzkeraz berariaz, *-la* atzizkipean neutralizatu dira kontestu eta balio semantiko guztiak. Mendebalde honetako berbakuntzearen ekarri aberasgarria izan daiteke, ez bakarrik geure euskalkirako ezpada ze batu estandarrerako, *-n* hizkidun konpletiboei zor jaken tokia eskeintzea, eta aldi berean, osagarri-eredu bakotxaz zertzelada semantiko bereziak adierazotea.

Gure euskeratiko isladatzat aurkeztu geinkez adibide bat edo beste:

Ze umek ez dau gura, gurasoak jaramon egin degion?
Haiek be, gure antzean, sariren bat emon degioen nahi leukie.
Kontatu deutsudana, ez da komeni bazterrak guztietan zabaltzen ibili zaitezan.
Erasoka ibili barik, bake-bakean etxera joan daitezan itxi egiozue.
Bildur dira engainuren bat sakatu degioen.

Autoreetan ez dira honetariko ereduak falta. Aditz nagusien arabera zerrendatuko ditugu:

gura izan:
"Arraca! Gura aldoc ybilinadin maquilaca ta agaca?" (Barrutia *Acto* 8),

bildur izan:"
"eta bildur izateco da bere maldicinoea etorri ezteñ euren ganera" (Olaetxea *Dotr* 118)

galerazo:

"Inguruban artu ez gaguijezan arerijo pilluac, galerazoten dau toquijaren estutasunac" (Mogel *PAb* 140).

obe izan:

"beste batzuei ez eracusteco ez dakiena, ta yakin beré ez daguien oba dana" (Zabala *Irun* 131)

1.5. *-nentz* eta *ba-* zehar galderazkoak

Zehar-galdera perpausak, bai-ez erako itaun-mota danean, aditzari *-n* gehiturik atontzen dira euskeraren eremu osoan. Zeharreko perpausari galdera-tasuna argiro markatzeko *ea* —gehienbat *ia* ahozkatua— aurrekaria erantsi ohi jako sarritan mende-perpausaren sarreran. Aurrekari honen presentzia, dana dala, ez da ezinbestekoa.

Bizkai alderdian, eta berariaz erdi eta mendebaldean, fenomeno bitxia jazo da marka-erabileren kontuan. Batetik *ba-* nagusitu da, baldintzazko aditz aurrizki bera, gaztelaniazko *si* preposizioaren bidezko neutralizazioa oso-osorik iruntsiaz: kalku morfo-semantiko bat dala esango genduke.

Kutsadura hori, irakaskuntzan zorrotz epaitu eta zuzendu izan dana, ez da barri-barria mendebal euskeran. Autore klasiko batzutan —Añibarro eta Zabala adigarri nagusi dirala— eurrezean izentau geinkez holako kasuak, eta urrunago joanda Mikoleta bilbotarragan be bai. Honetara dino haren solaskideetariko batek: *Adi zate badau -ke kalzerdiak punkturik askaturik*. (*Metodo* 12v)

Lantxo honetan ez dot *ba-* horren zilegitasunaz gehiago luzatu gura —bego hurrengo baterako—, eta bai zuzen-zuzen jo *-nentz* atzekariaren kontura. Ondino be Bizkai erdiko uri eta herri batzutan *danentz, dauanentz, dagoanentz* eta halakoak entzuteko erak ez dira falta. Berariaz, Bermeo eta Mundaka inguruan. Mende honetako

autore batzuk bizi barria emon deutse atzizki honi, eta halan Otxolua mundakarrak be, beste batzuen artean:

"Eta Kolete'gana biurturik ezer ekarri ebanentz itaundu eutsan" (Otxolua *AbDonts*); "baña Martin Zoriontsuak, aregana zuzenduta, eskatuten dautso, arren, itzi egiola berari, ea eden barik zuzenduten ebanentz a arazoa" (Otxolua *AberDonts*).

Eta herri-tradizioko koplaren batzutan be itxi dau hondarra. Halan:

"Matxalen Busturiko / amari negarrez / amantal barri barik / ezkonduko danez."

Tradizinoaren sustraietara bagoaz, Bizkai mendebaldean ditugu lekukotasunik argi eta ugarienak, batez be Añibarro eta Zabala lako autoreetan. Autoreok Arrati eta Ibaizabal inguruko aldaeraren barri emoten deuskue, *-nez* eta ez *-nentz*, ditugun datuen arabera. Honetariko adizkiak ditugu eurakan *-nez* atzizkiaz: *danez*, *zareanez*, *dozunez*, *deutsazunez*, besteak beste. Baina bigarren ohar bat egin behar da artez autoreon erabilera dala-ta: autoreotan hainbat ugariagoa da *ba-* aurrizkia *-nez* atzizkia baino, eta bata besteagaz emendio-juntaduraz alkartuta be behin baino sarriago aurkeztu lekikeguz:

"Adi-zaite (…) Santutu badozu Jai-eguna; eta berean becaturic eguin dozunez: edo egunic gueiena jocoan, dantzan, ordi-lecuetan emon dozunez." (Añ *EscL* 130).

Testu zaharragoetara jo ezkero, Durangoko idazle zaharretan be itxi dau atzizki honek azterrena, *-enz* itxurapean. Halan darabil Kapanagak:

"Itandu beguio bacochac bere bioçari (…): 1. Ea dudaric edugui dabenz Fedeco misterioetan" (*Dotr* 91), "Esan begui (…): 3. Ea iura-

mentu eguin beben, pecatu mortala dan gauçarenbat, eguiteco, edo vengueetaco bere burua, edo orduen intenciño euquenz cumplietaco, cerren dira pecatu mortalbi." (*Dotr* 93)

Durangoko eskolakoen erabilerotatik Mogelen aldira jauzi egiten badogu, Bizkai ekialdeko klasikoetan nekez idoroko dogu *-nentz* eta honen aldaeren lorratzik. Ez beraren ilobetan, ez Astarloetarretan, ez Frai Bartologan.

Ditugun ezaugarrietatik atera geinke XIX. mendean zabal ebilela ondino Bizkai euskeran atzizkia, berariaz Bizkai erdi eta mendebaldean, *-nentz* edo *-nez* itxurapean.

Goiko zertzeladotatik, honako ondorioak atera geinkez: batetik, sustrai zaharrak dituala atzizki honek bizkaieran, berariaz erdi eta mendebaldean; bestetik, atzera egin dauala beronen erabilerak azken mendeotan, beste arrazoi batzuen artean idazleek ia aintzat hartu izan ez dabelako; hirugarrenez, hogeigarren mendeko lehen hereneko idazle bizkaitar batzuk saiatu dirala berau berpizten, ta azkenez, ondino be guztiz ez dala aldendu euskaldunen ezpanetatik.

Honi guztioni dautsala, ifar ekialdeko euskaldunen tradizino indartsuagoa gogora ekarri behar da. Hango idazleek estimu hobea emon deutse, XVI. mendetik eta gaurrarte, ahoz be sendo dirauan atzizki honi, dala *-netz* edo *-nz* edo beste itxuraz. Eta ekialde-mendebalde zubi hori eginik, arrazoi sendoak dagoz gaurko euskeran be atzizkiari bizi barria emoteko, bai bizkai euskeran, bai euskara batuan.

Baina hemen be kontuz okerreko erabilerakaz: *nor/zer* erako itaunperpausetan ez da zilegi *-nentz;* bai-ez erakoetan baino ez da erabilgarri.

2. ATZIZKI MENDERAGARRI BEREZI BI

Sail honetan adizlagun funtzioa beteten daben mende-perpausetarik hauturiko atzizki bi zehetuko ditut: *-ntzat* eta *-la-ta*.

2.1. *-ntzat* helburuzkoa

Laguntzaile bururatuek (**edin, *ezan, egin*) —inoiz aditz trinko bururatuek be bai— menderagailutzat *-n* atzizkia hartzen dabenean, helburu zentzuko menderakuntza adierazoten dabe askotan. Halakoetan, perpaus nagusian adizlagun funtzioa beteten dabela esan ohi da. Hori euskara osoko araua da.

Bada euskeran, helburu balio bera jagoten dauan atzizki aldagarri bat, *-ntzat*, morfologiaz bikotxa dana: *-n* aditz-atzizkia + *-tzat* prolatiboa. Hau be euskera osoan hedaturik egoan inoizko denporan, eta euskera historikoan ekialde eta mendebaldeko tradizino klasikoan gorde da; erdialdean ostera nekezago. Halanda guzti be, Larramendik aitatzen ditu bere gramatikan (321 orr.), perp. helburuzkoen marka orokor legez.

Holan bada, Leizarraga, Axular eta ekialdeko autore klasiko enparaduetan idoro geinken modu berean, aurkez egin geinke antzeko mende-aditzekin Bizkai mendebaldeko tradizinoan; esan gura da, Añibarro, Zabala eta halakoetan. Misionari bilbotarrak bere gramatikan dirausku —argitaratu XIX. mendearen erdi aurretxoan egin zan, baina beronen egikuntza aurreko hamarkada bietakoa izango da gitxi gorabehera— Bizkai erdiko herrietan ondino erabilten zala. Holan dala, ez da horren aspaldikoa *-ntzat* atzizkiaren galera.

Idatzi zaharretara jo ezkero, nahi-ta gure testu-corpusa laburra izan, adibideak neke barik azalduko jakuz han-hor-hemen. Baina barriro be Añibarro arratiarra eta J.M. Zabala bilbotarra ditugu lekukorik umotuenak XIX. mendearen lehen herenean:

“arguitu fedebagueac, ezagutu daientzat guztiac ceure fedea, leguea, Icen, ta Izate miragarria” (Añ *EscL* 100)

“Alanche prestadu bear dira biotzac, Yaungoicoaren berbearen acia erne, aci, eta laborea emotera etorri dedintzat.” (JMZabala *Jerus*7)

Laudioko doktrinea dogu mende berorretako beste lekuko on bat; hango berbetan guztiz ohikoa zanaren seinale:

“I. Cegatic ciñatuten zara becoquiyan?. E. Jangoicoac libradu gaguizanzat pensamentu deungüetaric.” (*Dotr* 10)

Mende honetan barriro be Otxolua aitatu behar da, tradizino zaharreko formai odol barria emoten ahalegindu ziran idazleen artean:

«eta eguno eten barik ekingo deutsat Areri otoitz egiten, nire ordez oparo sariztau zagiezantzat» (Otxolua)

Gaur eguneko izkribatzaileetan ez dirudi arrakasta handiegirik daukanik.

2.2. *-la-ta* (*-la eta*)

Mendebalde osoan, eta haruntzago be, erruz dabilena, eta gaurregun batu estandarrean be ondo lekuturik dagoan atzizki-marka bikotx honek, balioak be bi ditu: bata nagusia eta bestea bazterrekoa.

Balio nagusia, dudatzaka, kausalitatearena da, eta horren barruan kausa subjektiboa adierazotekoa; hau da, perpaus nagusian aitaturiko aktanteari egozten jako arrazoi hori; ez da guztiontzakoa, beraz. Hala esaten dira:

Eskola emotera ez datorrela esan dau, gaisorik dagoala-ta.
Taxia hartzeko esan deutsat, ostean berandu egingo jakola-ta.

Ildo horren harian, Bizkai mendebaldeko eskualde batzutan —Mungialde eta Txorierrian sarri entzun dot— *zegaitik* kausazko itaun-hitzaren lekuan *zer dala-ta* be erabilten da: *Zer dala-ta ez zara arterago etorri?*

Tradizino zaharrean nekez idoroko dogu atzizki bikotx honen aztarrenik. Oker ez banago, J.M. Zabala bilbotarra dogu klasikoen artean lekukorik agiriena eta baleiteke zaharrena izatea be, XIX. mendearen hirugarren hamarkada hasieratik aurrera. Jakingarria da gainera, *-lata* dana batera idazten dauala berak, atzizki bakuna balitz legez, *-lako* edo *-larik* ohi diran modura. Haren idatzian beti gordeten dau kausa-zentzua:

"eta orregaiti ez Pontificeac, ta ez iñoc ezteutso aurpeguiric artuten, ez chitic (mistic) eguiten, Yesucristori eguin ezkero, ondo eguinic dagoalata" (Serm *Pas* 12)

"Dirauscu beti prest egoteco, gueuc eztakigun orduan etorrico yaculata" (Serm *Biur*)

Atzizki honen bigarren balioa, osagarrien luzapen bat da, eta *egon* aditz nagusiari erantsirik erabilten da, *-lakoa / -lakoan* atzizkiaren balio beretsuaz. Esapideonen egitura: …*la-ta egon.* Halan esan ohi da: *Euria egingo dauala-ta nago*. Egitura horrek ordezkatu dauala pentsa leikete *-lakoa* zaharra. Esaldi bera errepikatuz: *Euria egingo daualako -an nago / daualakoa daukat.* Zamarriparen esaldi honek darakus argiro egitura honen izaera:

"Galdu azala ta egon nok ba, Txitxu" (*Firi-firi* 48)

Atzizki hau, bai kausa balioaz, bai osagarriarenaz, guztiz erabilgarria da gaur egungo idazkeran. Baieztapenari emoten deutsan ikuspegi subjektiboa da honen ekarri aberasgarria. Mezua adirazterakoan, aktante aitatuaren ikuspegia isladatzeak komunikabide borobilagoa lortzen dau. Euskara batuan be, ohi dan baino usu handiagoa emon behar litxakiola-ta nago.

Ezinbestean aitatu behar da, halanda be, egin ohi dan okerkuntza nagusi bat: kausa objektiboak adierazoteko *-la eta* erabiltea. Egin daigun kasurako: **Euritakoa hartuko dot badaezpadan, euria egingo dauala-ta.* Esaldi horretan oker erabilita dago kausa-atzizkia: edo *eta* soila edo *-lako* atzizkia erabili behar ziratekean, besteko barik.

3. ATZEKARI BATZUEN INGURUAN

3.1. -N LEGEZ / -NA LEGEZ

Beste atzekari gehienen antzera, *legez / lez* be *-n* atz. erlatibodunari erantsirik azaltzen da, beste euskalkietan *bezala* egiten dan taiu berean.

Bizkai euskaran bada, horraitino, aditz jokatua mugatzaile eta guzti erabilteko albo-joera bat, guztiz zaharra dana, eta gaurregun be ondino bizirik dirauana. Arrati aldean, ez balio modalaz, ezpada kausalaz, guztiz ohiko eta ekanduzkoak dira honen antzekoak: *Bihar domekea danalez, gaur erosi beharko da etxerako behar dana.* Gure euskaran testurik zaharrenetarik lekukotua dago, *-n legez* dagoan legetxe, eta harrezkeroko idatzietan be uste baino ugariagoa da.

Lekukotasun zaharretan, baina, modalitate balioa da nagusi. Guztiz ezaguna da Garibaik baturiko errefrau bateko eredua: «*Garean, gareana leguez*. Seamos, como somos» (*Garibai* A 23). Baina beste autore eta testu zahar batzutan be idoro leitekez horren azterrenak. Hautu labur honek on egin leike dinodana:

“vaya ene errian esan daroenaleguez, adarrac eta ulla urdinac estoas etorri egunacayti” (Mikoleta 201, 8)

“seculaco erreetan ninçala erremediobaga, dagoçana leguez egun asco, ene pecatuac beño cheagoac gaiti” (Kapanaga *Dotr* 117)

"parcatu deiguzala Jangoicoac gueure falta, eta pecatuac, gueuc parcatuten deusteguna leguez gueuri deungaro, eta gach eguin deuscuenai" (Olaetxea 94).

Harritu gaitu apur bat, Añibarro eta Zabalak beti *-n legez* erabilteak eta inoiz ez edo nekez *-na legez*, egitura hau euren hizkerakoa izanda. Baina ez da ahaztu behar, autoreak idazkeran bere hautuak egiten dituala, zein lexiko zein gramatika-egituretan, eta behar bada eretxiko eutsen lehenengoaz nahiko ebela eta bigarrena zokoratu. Halan da beste askoren legea be. Idazleak ez ditu sekula oso-osoan isladatzen bere inguruko erregistroak, ezpada ze batzuk hobesten ditu eta alperrikotzat dituanei muzin egin.

Gaur egungoari begira, ez da erraz egitura berezi horri erabilgune bat izentatzea, baina bat eskeintzekotan, gaur Arrati aldean daukan bera hautatuko neuke, erdarazko *como* kausazkoarena: *Aratosteak dirana lez, astelehenean ez daukagu eskolarik.*

3.2. LAKO(A) / LEGEZKO(A) moduzkoak

Lako atzizkiaz abiatuko gara. Honek tradizinoz dauan erabilgunea, izenordain eta erakusleakazkoa da, baina osteango izen arruntekin erabiltera be zabaldu da denborearen joanean. Eta bide beretik, aditz jokatuaz erabiltera be heldu da, batez be ahozko hizkeran, baina idatziz be bai.

Atzizki honek berez adnominal legez dihardu perpausan, tokigenitiboaren papera eginez: *lako* eta *lakoxe* indartua dira batetik, eta mugatzaileaz *lakoa / lakoxea* bestetik. Baina zeren adnominala? itaun egin beharko genduke. Gehienbat *legez / lez* atzekari adberbialarena. Izan be, honi berez dagokion genitiboa, *legezko*, ia galdurik dago, eta honen lekua da azken mendeotan *lako* atzizkiak hartu dauana, eta eboluzino horren ondorenez, atzekari autonomo bihurtu da, eta ez *-la* dan legezko atzizki soila. Autore klasikoetan ondino ugariro ikusi

geinke *legezko* hori, bai izenaren, bai aditzaren eremuan. Mogelegaz on egingo dot dinodana:

"batez bere emoten zachatazalaco ni leguezco guiza char esquergaistoco bati (JAMog *DC* 321), "Esan gura dau, guc ditugun leguezco gorputz ta arima bat artutia." (JAMog *DC* 28)

Mende honetan atzeraka egin dau *legezko* formak, eta *lako, modu-ko* ordezkoei txanda emon. Bihur gaitezan *lako* horretara, eta beronen sintaxia zertzelatu. Izen eta izenkiekazko erabileren eredutzat emon daiguzan bi honeek:

Zu lako (bezalako) mutil batek jakin behar leuke horrenbeste.
Bere aita lakoxea da semea be.

Aitzagazkoan sintaxi-era bi onartzen ditu. *Izan* aditzaz adiabideturik: *da(n) lakoa* edota *dana lakoa*. Bata *-n* soilaz, bestea *-na* mugatzaileduna. Jo daiguzan ondoko ereduok:

Bakotxa bera dan lakoa da.
Umeonek daukan lako susterbakotasunik ezin leiteke sinestu be egin.
Erosiko dodan konputagailua ez da izango zuk gura dozun lakoa, neuk behar dodan lakoa baino.

Tradizino idatzian erakusleakaz azaltzen da sarriroen, eta atzizki legez txertaturik: *alango* da nagusi, baina *onelango, olango* edo *orrelango* be ez guztiz bakanak. Izenordainekin be azaltzen da batzutan, *ni, gu, berori* eta halakoekin:

"Jesus berac gu langoac gaiti eztiño:" (Añibarro *Misionari* I), "Berori lango guizon letra andietaco batec ori sinistuco eban?", "nilango asco eldu izango dira beragana" (Añibarro *Misionari*II)

Askoz bitxiagoa gertatzen da aditz jokatuari dautsala ikustea, gaur egun ahoz maiztasun handiz entzunagaitik. Mogelek inoiz badarabil,

ezezkako perpaus baten barruan, gaurregun be esaten dan *inor ez lako* adnominalaren antzeko esapide bat:

Amaitu ebanian besteric ez laaco obra andija (JAMog *Serm* 89).
Zabalak, darabilen apurretan, aditz erlatibo mugatzailedunaz egiten dau:
Jangoicoac aguinduten davena langoa [leguezcoa] (*Irun* 189)

Idazle bilbotarraren lorratzean egin behar jako egitura honi lekua gaur egungo beharrizanetarako.

3.3. MODUAN atzekaria, ald. *modura.*

Erdaratiko mailebua izanagaitik, *moduan* (*modura*) hitz atzekaria arlo zabala hartzera heldu da mendebaldeko hiztunon artean, erdi eta ekialdeko hiztunek *bezala* darabilen eremua beteteko, eta sarri askotan *legez / lez* dalakoarena laburtuz.

Izenkiekiko joskeran ezinbestekoa da *-en* gen. edutezkoaren partaidetza: *gure moduan, horren moduan, umeen moduan,* salbuespen bakar bategaz: mugatu bako izen-adjektiboakaz be josi leiteke: *ume moduan, txiki moduan.* Argibide hau ez da alperrekoa, ze batek baino gehiagok *legez*-en sintaxia egotzi deutso *moduan / modura* horri, eta inongo hiztunek ez darabilzan joskera zelebreak asmatu: **Peruk moduan*, **Peruk modukoa* eta antzekoak.

Aditzagazko joskerari dagokionez, *-n* atzizkiaren bidez lotu ohi jako: *datorren moduan, dabilen moduan*. Eta aldi berean, adnominal be bihur daiteke *moduko* ereduaz, *bezalako* egiten dan antzera: *Zuk dituzun moduko soinekoak.*

Aditzaren elipsia gerta baledi, *-en* genitibo edutezkoaren bidez lotuko jako IS bati: *zuk daukazun moduan > zure moduan. Peruk daukan moduko autoa > Peruren moduko autoa.*

Ezezka emonik dagoanean moduzko perpausa, ezinezkoa da aditzaren galera: *Guk ez daukagun moduan, beste askok be ez dauka.* Baina: **Guk ez moduan, beste askok be ez dauka.*

Labur esateko, *moduan / moduko* atzekariak ez dau onartzen *beza - la / legez* atzekarien sintaxia. Arazo barik esan geinke: *Beste batzuk ez bezala, guk euskara egiten dugu.* Baina ezin esan daiteke: * *Beste batzuk ez moduan, guk euskera egiten dogu.*

3.4. (ETA) BERTATIK bat-batekoa

Denbora eremuko atzekaria.

Gaurregun asko bakandu da *bertatik* —hainbat lekutan *bertati*— denbora-aditzondoaren erabilera, 'unean bertan'. Baina ondino be asko entzuten da *bertan*, zentzu berberaz. Esaterako: *Bota neutsan tiroa eta bertan jausi zan ziku. Arnasoska hasi zan eta halako baten ber - tan hil zan.*

Gure tradizinoan itzal handia izan dauan egitura da, aditz partizipioari dautsala eta *eta* juntagailua zubi dala eregirikoa. Denbora zentzuko mende-perpausen barruan, bat-batekotasuna markatzen dabe honetarikoek. Ekialderako *eta berehala* atzekaria darabile honen lekuan.[2] Idazleakandik eredu bat edo beste jasoko dot: (cf. OEH, *Bertatik*)

"Demporaric oneen oneena da, examina conciencijacua eguin da bertatic" (Astarloa *UD* I, 187), eta zuc orduan igarri ta bertati botateco aleguina eguiten badozu, […] garbi izango dozu burua (Zabala *Arantzazu* 131)

[2] Bizkai euskeran be ezaguna *beehala* hau mende-perpausetan, batez be aldaeren bidez. Halan, /Part + *ta belantxe*/ idoro geinke Bizkai mendebaldeko autore batzutan: "berbertati [yaguita belanche] penitencia cunplidu [eguin]" (*Irun* 52).

Gaur egun beste egitura batzuek kendu deutse lekua honi, batzuk mailebuzkoak: *eta batera, eta segituan, eta atoan*. Eredu batuan *eta berehala* dateke honen ordezko erabilienetarikoa. Guk, dana dala, uste dogu literatura landuan bere lekua eskeini behar jakola barriro *bertatik* horri.

3.5. ORDUAN denbora-atzekaria

Aditzizenaz, edo baita aditz jokatuaz be, bizi-bizi dago *orduan* atzekariaren erabilera, euskara batuan eta euskalkietan orohar, *-nean* atzizkiaz eta ekialdean *larik* atzizkiaz adierazoten dan denbora-erlazio berbera emoteko: hau da, ekintza bi aldi beretsuan jazo direala adierazoteko:

Bizkai mendebaldean bizi-bizi dago ondino egitura hau, batez be Arrati aldean. Baina gaurko bizitasun horrek hainbat indar handiagoa hartzen dau, ikusirik autore zaharretarik jatorkun tradizino aberats baten ondare dala ikustean. Hara hemen lekukotasun zahar bi:

"Or[r]elan esanguradau, emastea dalá oná beaturic dagoan orduan [?]" (Mikoleta 206, 8)
"Kazara doean orduan beti aldamenean botea" (Barrutia 413)

Hemeretzigarren mendeko lehen hamarkadetan be indartsu agiri da, Zabala bilbotarraren lekukotasunei jaramoten badeutsegu behintzat. Hiru era honeetara darabil hak, aditzizenaz, partizipioaz nahi aditz jokatuaz:

¿Cer zugatz igar ustel bat ebat'orduan loraz, orriz, ta frutuz bete?(*Arantzazu* 242), Eguia da, guero griña ta leratasun charrac itsututen ninduala; baya ez nic confesetan nintzan orduan alango asmuric neuncalaco (*Irun* 67), baya ez neuc confesau orduan alango asmuric neuncalaco (*Arantzazu* 53)

Ereduok baliagarri izan daitekezalakoan gagoz gaur egungo idatz zereginetarako be.

3.6. -AZ OSTEAN banatzailea

Mende-perpaus honek, oinarrian, emendio zentzua adierazoten dau, prozesu edo ekintza biren arteko batuketa, baina ikuspuntu berezi batetik: A + B maila berean egon beharretan, A osakina B osakinaren mende jartzen da, A-ren B-ganako atxikimendua agertuz; hau da, A-ren gainera B gertatzen dala.

Gaurregun zabalago dabil *-az / -teaz gainera* egitura hiztunen artean, eta azaldu gura dogun hau zaharkitu samar geratu da. Baina autortu behar da, tradizino idatzian eremu aberatsa bete dauala bizkai euskeran, aspaldi-aspaldirik hasita. Kapanagaren honetan lehen perpausa da nagusia, bigarrena menderatzen dala:

"P. Bostgarren Mandamentuen ganean esaçu; çer debequeetanda ilteaz ostean?" (Kapanaga 49)]

Mogelegan be adibide egokiak ez dira falta, partizipioaz zein aditzizenaz:

Baztertubaz ostian, egon biar cenduban gueldi neu igaro artian (*Ipuñak* 27), Confesoria dalaco Juez izatiaz ostian, arimaco Osaguilla edo Medicuba (*CO* 16)

Zergaitik gaur be aukera bat emon ez egitura txukun honi, erregistro-dibersitatearen behar handian dagoan hizkuntza bat jaso gurarik gagozan aldi honetan?

4. ONDORIO GISA

Adibide batzuk baino ez ditut emon, mende-perpausetako egitura ugarietarik hautaturik. Beste asko dagoz, bai atzizkiak, baina baita

aurrekari eta atzekari mordoa be, bizkai euskeran tradizino sustraia ahozko erabilera biziaz buztartzen dabenak, eta arrazoi bikotx horregaitik guztiz erabilgarri izan daitekezanak gaurko idazkuntzan. Eurotariko batzuk euskara baturako be balio dabe, baina askoz gehiago dira bizkaieraz idaztorduan jokoa emon geinkioenak.

Hori izan da jardun honen bidez bete gura izan dogun asmoa. Eredu gitxi batzuk eskeini, euren bidez beste askoren bilakuntzan eta ustiakuntzan abia gaitezan. Eskerrik asko.